

Kultura

Ekainaren 6rako egun osoko jaialdia antolatu dute Elorrion, 'Argi' filmerako finantziazioa lortzeko > 15

INGURUMEN
GEHIGARRIA



“Zuzendaritzatik jaso dugun tratuagaz nekatuta geunden”

Iurretakoko emakumeen taldea desagertu egin da 25 urte eta gero. Orain, taldeko hamar kidek Ezkurdin ekingo diote hurrengo denboraldiari. > 17

Gerediaga, 50 urtez Durangaldea zaintzen, ikertzen eta zabaltzen

Mende Erdiko ibilbidea gogora ekarriko du Gerediaga Elkarrean, etzi, Astolan antolatuko duen egun osorako egitarauagaz.



10'90 € 

**McMenu[®] Grand
McExtrem[®] ertain 2***

**Ospatu gurekin
gure urteurrena**

* Bihur itzazu handi 1€ gehiago ordainduta

Eskeintza bakarra da McMenu[®] ertainentzat, Grand McExtrem[®] Originalentzat eta Grand McExtrem[®] Baconentzat, 2015eko ekainaren 15etik ekainaren 30era. Ezin da baxatuta eskaintza edo promozioa gaitu.

Zure McDonald's[®] Abadiño jatetxean bakarrik

bizkaiweb
dizetaria eta web garapena

WEB ORRI PROFESIONALA 590€

+domeinua +alojamendua +e-posta profesionala
+diseinu pertsonalizatua eta interneten
agertzeko behar duzun guztia baren!!

www.bizkaiweb.net

Abadiño - Durango - 946 248 117 / 630 616 854

Atxondo > 6

Barraskiko auzian, udalaren jarrera babestu du Elizburuk

Durango > 4

Txirindularientzako tranpak jarri dituztela salatu du Sapubikek

Mallabia > 9

Kontzejuzarra, erabilera ugariko gunea, inauguratu dute

Durango > 4

'Marea laranja'-ren aldeko kontzertua, Plateruenean, bihar

Herririk herri



Azoka, Andra Marian, 1969an.



Merkatu plazan, 1970eko hamarkadan.

Gerediaga, 50 urtez kultura, historia eta ondarea sustatzen

Gerediagaren ibilbidea oroitu dute Lizundiak, Goikoleak, Irazabalek eta Mujikak

DURANGALDEA M. Onaindia 1965. urtea zen, frankismo garaia. Hainbat lagun zebiltzan hausnarketan, Durangaldeko kultura, historia eta ondarea sustatzeko beharrak bultzatuta. Durangaldea zaintzea, ikertzea eta zabaltzea zen euren asmoa. Ekainaren 7an, Abadiñon batu ziren, Soloanean, eta hantxe jaio zen Gerediaga Elkarteak. Hamai-ka herritar ziren, eta haien artean zegoen Jose Luis Lizundia euskaltzaina. Harro sentitzen da sortzaile izateaz, eta pozik dago Gerediagak ordutik hona izan duen arrakastagatik: “Eskualdean interesa eta arrakasta lortu zituen elkarteak. Durangoko Azokagaz, Euskal Herri guztian erreferente bihurtu ginen”. Ilusioz beteriko ekintzaileak ziren, eta Durangoko Azoka izan zen euren iraultza txikia: “Lehenengo azoka lan eta eragozpen askoren ostean egin genuen”.

“Itxaropen handiko uneak” Lehenengo presidentea Conchita Astola izan zen, eta gerora etorri ziren Balendin Lasuen,

Jose Ignacio Alberdi eta Sabin Goikolea. 16 urteaz hurreratu zen Goikolea Gerediagara. Andra Marian egiten zen azokan boluntario gisa parte hartu zuen, “euskararen eta Euskadiren alde zerbait egin nahian”. Gero, frankismoa amaitzean hartu zuen presidente kargua, eta “itxaropen handiko uneak” zirela dio. Ordurako lanik zailena eginda zegoela uste du, “aurkako giro politiko batean eta baliabide gutxiagaz”.

Telefonorik barik

1980ko hamarkadan, Antton Mari Aldekoa-Otalora presidente zela, azoka zuzentzeko 20 urteko zaparro batengan ipini zuten konfiantza. Jon Irazabal zen gazte hori, eta ordura arte elkarteak artxiboaz arduratzen zen: “Muntaia, giroa, gizartea... Guztia zen desberdina”. Gaur egun pentsaezina litzateke telefono mugikor barik lan egitea. “Hitz liburu dendako telefonoa erabiltzen genuen, eta eguerdian eta gauean egiten ziren telefono deiak”. Abantaila, borondatez-

ko lana: “Laguntza beldur barik eskatzen genuen, eta erantzun egiten zuen jendeak”.

Azokaz aparte, Gerediagak hainbat arlotan egindako lana azpimarratu du Irazabalek: adibidez, euskara ikasteko gau eskolak sortzen eta baserriarren kooperatiba bultzatzen. “Frankismoan, udal hauteskundeetarako hautagaiak aurkeztu zituen Gerediagak Durangon eta Abadiñon. Baina Gobernuak ez zuen onartu”. 50. urtemugaren harira, liburua landu du Irazabalek Raquel Calvo kazetariagaz batera.

Azokaren trantsizioa

1980ko hamarkadan, Gerediagako kide egin zenean, ez zegoen Nerea Mujikaren asmoen artean presidente izatea. Baina 2004an izendatu zuten, eta azokaren zabalpenaren trantsizioa gidatu du. “Harro sentitzen naiz bide horregaz. Gerediagaren ateak beti zabalik egon behar du, jakinda elkarlana beti aberasgarria dela, nahiz eta batzuetan zaila izan”.



1994an, karpan, Landako Gunea eraiki aurretik.

2012ko edizioan azokako zuzendari izan zen Aiert Goenagari ez zioten kontratua berritu, eta horrek ekarritako “gorabeherak eta une tristeak” akordu gazien artean ditu Mujikak. Gozoren artean, “gaztetako idolo bati, Benito Lertxundiri, argizaiola saria ematea” aipatu du.

Mujikaren esanetan, Gerediagak gaur egungo egoeretara egokitu, eta gazteriarengana heltzeko kezka eduki du, eta aurrera begira ere hori izango da erronketako bat. Bestalde, aurtentzako den 50. Durangoko Azoka berezia izango dela adierazi du. Bitartean, Gerediagaren sortzaileak eta ordutik hona egindako lana omenduko dituzte etzi, Topa egunean.

TOPA GEREDIAGA EKAINAK 7, ASTOLAN

10:30ean

- Umeentzako tailerra: ‘Arkeologo egun batez’
- Berbaldia: ‘Zer da lehentasunezkoa?’
- Photowalk argazki saioa. Elkargunea: Durangoko Andra Marian, 10:00etan.

13:00etan

- Ekitaldi nagusia.

14:00etan

- Bazkaria eta kantu-erromeria.

anboto 
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org


2015eko ekainaren 5a,
13. urtea - 592. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia,
Ibaso Martinez de Arenaza
Yarza, Amaia Huarte Basabe.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña,
Martxel Zubia Arrinda,
Eneko Azurmendi Barrena.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga Egidazu.

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Txirrindularientzako tranpak jarri dituztela salatu du Sapubikek

Bidexketan harriak, enborrak eta makilak topatu dituzte, “apropos” jarrita

DURANGO Amaia Ugalde Ekainaren 28rako mendiko bizikleta proba antolatzen dabil Sapubike elkarteak, eta hasi da lasterketarako zirkuitua prestatzen. Lan horietan, baina, bi-

dean txirrindulariei traba egiteko “apropos” jarritako harriak eta enborrak topatu dituztela azaldu dute elkarteak kideek, eta ez dela lehenengo aldia: Sapubike martxa antolatu duten

lau urteotan urtero gertatu zaizkie horrelakoak.

Mendi bideetan jarritako trabak “oso arriskutsuak” direla ohartarazi dute Sapubike taldekoek, eta iaz izandako tranpa



Sapubike elkarteak urtero topatu ditu tranpak baso bideetan.

bat aipatu dute bereziki: pinu biren artean alanbre bat jarri zuten metro bateko altueran, eta, horren eraginez, txirrindulari batek istripua izan zuen; “zorionez, ez zen larri zauritu, bizikletak kalte handiak izan zituen arren”. Orduan, salaketa ipini zuten Sapubikeko kideek.

laz, pinuen artean alanbre bat jarri zuten, eta, horren eraginez, istripua izan zuen txirrindulari batek

Aurten ere arazo bera izaten dabilta. Bizikleta proba prestatzen hasi direnean ikusi dituzte lehen trabak. Harriak, makilak eta enborrak bideetik kendu, eta handik egun batzuetara berriro jarri dituztela kritikatu dute. Menditik ibiltzen den edonorentzat arriskutsua dela adierazi dute. “Istripu larri bat jazo aurretik prentsara jotzea pentsatu dugu, denon artean horrelako delitu jarduerak geratzeko”.

650 pertsona elkartuko dira arrozaren bueltan

DURANGO A.U.

Ekainaren 13an, zapatua, Munduko Arrozak jaiaren zazpi-garren edizioa ospatuko dute Ezkurdin. Aurten, Durangoko hamasei elkartek parte hartuko dute, eta dagoeneko 650 pertsonak eman dute izena bazkaritarako. Jaiaren helburua elkarteak nahastea eta ezagutztea da, eta, arrozak dastatzearen aitzakian, kulturarteko ezagutza lantzea ere bai.

Datorren zapatuan, txalaparta doinuekin hasiko dute jaiak, 11:45 aldean. Eguerdian, arrozak prestatzen hasi, eta 14:30ean hasiko dira bazkaltzen. Bitartean, tailerrak, Ipar Euskal Herriko dantzak, txaranga eta batukada izango dituzte. Bazkalostean, elkarteak diploma banaketa izango dute. Gero, Senegalgo eta Gineako dantzez, eta Boliviako musikaz gozatzeko aukera edukiko dute.

Zornotza pintxozaleen topagune domekara arte

ZORNOTZA J. Derteano Jan Alai pintxo lehiaketaren laugarren aldia eguaztenean hasi zuten, eta domekara arte iraungo du. Iaz, 65.000 pintxotik gora saldu zituzten taberna edo jatetxe guztien artean.

Guztira, 54 taberna eta jatetxe dabilta parte hartzen, bakoitza bere pintxoagaz. Urtero legez, herritarren iritzia kontuan hartuko dute, eta pintxorik zein zerbitzaririk onenak bozkatu ahal izango dituzte. Taber-

na guztiak sei gunetan banatuta egongo dira. Herritar bakoitzak, gutxienez, hemezortzi pintxo probatu beharko ditu bozkak balio dezan; gune bakoitzeko hiru. Pintxo bakoitzak 1,3 euro balio du. Epaimahaikide profesionalak, ostera, pintxo guztiak probatuko dituzte, eta sari banaketa ekitaldia domekan izango da, 20:00etan, Zelaieta zentroan. Irabazleak 1.000 euro jasoko ditu, eta hamar pintxorik onenen zerrenda zein den ere jakinaraziko dute. Iaz, Boroa jatetxeak epaimahaia zein herritarren saria jaso zituen

Barikuan eta zapatuan, 12:00etatik 15:30era eta 19:00etatik 22:00etara dago lehiaketako pintxoak dastatzeko aukera. Domekan, aldiz, eguerdira arte bakarrik: 12:00etatik 15:00etara.

Aurten ohi baino hiru astebeuru lehenago antolatu dute Jan Alai. Izan ere, datozen astebeuruetan hainbat ekimen izango dira, eta horiekin ez pilatzeko hartu dute erabakia.



Lehiaketara aurkeztutako pintxoetako bat.

Zea Maysek kontzertua eskainiko du Mekoletan

Gaur izango da musika saioa, 23:00etan

OTXANDIO Joseba Derteano Mekoletan, San Bernabe jaiak ospatzeko, askotariko ekitaldiak prestatu dituzte gaurko eta biharko. Gaur, 21:00etan jaurtiko duten txupinazoak iragarriko du jaien hasiera. Ondoren, gazteek herri afaria egingo dute Arkotxe kultur elkartearen. Afa-lostean musika izango da protagonista. 23:00etan, Zea Mays taldeak kontzertua eskainiko du, eta, ostean, Izerdi Gorria taldearen erromeriagaz eta DJ Nafagaz dantzatu ahalko da.

Bihar, Urduri dantza taldeak saioa eskainiko du 17:00etatik aurrera. Egitaraua osatzera-koan, gaztetxoak ere kontuan hartu dituzte, eta, 18:00etan, *Munduan berbena* ikuskizu-

na eskainiko du Txatxilipurdi taldeak. 19:00etan, hainbat otxandiarrek euskal kantuek abestuko dituzte. Arratsaldeak Arantzarte taldearen dantza saioagaz jarraituko du aurrera. 23:00etan Bertso Bira antolatu dute; bertsolari biren laguntzagaz baserririk baserri kantukantari ibiliko dira. Mekolertara bueltan, Xabik eta Josebak erromeria eskainiko dute gau giroa alaitzeko.

Ekainaren 11n ere jaiak

Ekainaren 11n ere, San Bernabe egunean, jai giroa nagusituko da. Meza eta luntxa egongo dira 13:00etan, eta 17:00etatik aurrera, mus eta briska txapelketak egingo dituzte.

GALLASTEGI

www.gallastegiharategiak.com

1955ean sortua

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

momotxo

t a b e r n a





Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: 946 811 006

MALLABIKO NEKAZARITZA ETA ARTISAUTZA AZOKA

ekainak 7

10:00 Azokaren ate irekitzea.

Antzinako euskal emakumeen antzezpena.
Antolatzailea: Nahikari emakume elkartea.

10:00 Aberoen erakusketa plazan.


Sari banaketak.

Orturien posturik ederrenari.
Baserritar jantziak dotoreenari
(mutil eta neska).



12:00 Gazte Alai dantza taldea.

13:00 Txikito de Mallabiarri omenaldia.

Gndoren abiadura proba: Xabat Uzuariaga
korrika eta Koldo Pradera bizikletan. Nekane
Pradera korrika eta Alala Amesti bizikletan.
Egoitz Txumuka korrika eta Gaizka zaldian.



JANTZI BASERRITAR ETA ZATOZ GOZATZERA!





Barraskiko etxebizitzetako lanak gelditu daude gaur egun.

Rosa Elizburu: “Lizentzia luzatu izan banie, orduan prebarikatuko nuen”

Barraskiko etxebizitzaren auzian hartutako erabakiak babestu ditu alkateak

ATXONDO Joseba Derteano Barraskiko etxebizitzak eraikitzeke arduratzen duen Norvisa Promociones enpresaren buruak Rosa Elizbururen (amaitzearen agintaldiko alkatea) eta David Cobosen (2007tik 2011ra alkate, eta EH Bilduren aurtengo zerrendaburua) kontrako demanda jarri du. Erabaki “bidegabeak” hartuz, udalaren azken helburua etxebizitzaren jabetza eskuratzea dela jasotzen du demandak. “Prebarkariazioa” leporatzen die. Elizburuk udal

jardueran hartutako erabakiak babestu ditu. Promotorearen urtetako “gezurren” aurrean, helburu biren alde lan egin dutela dio: “Udalari zor zaiona berreskuratzen –400.000 euro– eta proiektua aurrera irten zedin bideak lantzen saiatu gara”.

Udaletik hartutako hiru erabaki daude demandaren oinarrian. Lehenengo, “obrak gelditzea probokatu” zutela salatu du. 2012an udalak eta Norvisak adostutako akordio bati buruz dabil. Orduan, 300.000 euroko

zorra zuen Norvisak udalagaz. Udalak diru hori bere Udalkutxatik aurreratu zuen urbanizazio lanak egiten hasteko, baina gastuen kargu egitea Norvisari zegokion. Udalak bidalitako gastuen egiaztagiriak, ordea, ez zituen ordaindu. Hitzarmenak egoera desblokeatzeko alde bien arteko epeak markatzen zituen. Norvisak 120.000 euro ordaintzea zen lehen pausoa, “baina ez zituen epeak errespetatu”, dio Elizburuk: “Handik denbora batera ordaindu zuen, bere gai-

nean etengabe egon ostean”. Horrek susmo txarra eragin zien: “Konturatzen hasi ginen ez genuela diru gehiago jasoko”. Ondoren, handik denbora batera, Norvisak azaldu zien bazituela 300.000 euro, aktibo kutsatuak kudeatzeko Sareb elkartearen bidez lortuta. Kopuru horrek ordura arteko zorrak kitatzeko bakarrik balio zuen, baina egin barik dauden urbanizazio lanak amaitzeak beste 900.000 euroko inbertsioa eskatzen du: “Zor zitaiguna berreskuratu eta egiteke dauden urbanizazio lanen kostua kobratuko genuen ala ez jakin barik, ezin genuen udala beste zulo batean sartu”.

Demandan jasotzen den bigarren argudioa lizentzia obrari dagokio. 2014an lizentziaren luzapena eskatu, eta udalak ez zion eman. Elizbururen esanetan, lizentzia “2010etik iraugita zegoen”. Beraz, prozedura berriro hasieratik hastea zen lizentzia berriro emateko modu bakarra: “Lizentzia luzatu izan banie, orduan prebarikatuko nuen”.

Zor zaiona berreskuratzeke prozedura abiatu du udalak: “Helburua ez da etxebizitzak jabetza hartzea, baizik eta zor zaiguna berreskuratzea. Epai-leak erabakiko du zelan. Bide hori orain arte atzeratu badugu, Norvisak kaltetu dituenentzat ona ez zelako izan da”.

Alemaniko garagardoa dastatu ahalko da biharko jaialdian

MAÑARIA Markel Onaindia Punk&Drunk garagardo jaia- ren bigarren edizioa egingo dute bihar, Mañarian, egun osoko egitarau batez. Punk-rock musika eta garagardoa izango dira protagonistak, eta, hain zuzen ere, Alemaniako garagardoa dastatu ahalko da egun osoan.

Jaialdia 12:00etan hasiko dute, sokatira lehiaketagaz, eta, ondoren, 14:00etan, herri bazkarian elkartuko dira. Bazkalostean triki-poteoa egingo dute, eta 19:00etatik aurrera hainbat kontzertu eskainiko dituzte. Lehenengo emanaldia Errekondo tabernan ikusi ahalko da, Deiedra taldearen eskutik. Gero, 21:30ean, plazan jarraituko da musika emanaldiak. Mocker’s, Screemers&Sinners, Dirty Brothers eta Bilbomatiks taldeek joko dute plazako agertokian. Antolatzaileek jakinarazi dute kontzertu guztiak doan izango direla.

Black&White punk magazina, *Pots&Crime* diskoetxea eta Lokal IX bilgunea dira garagardo jaia antolatu dutenak.

Santa Agedan erretokiak su hartu zuen, domekan

Kobrea lortzeko kableak erretzen zebiltzala uste dute

IZURTZA J.D. Santa Ageda ermitaren inguruan janariak txingarretan erreta prestatzeko dagoen erretokietako batek su hartu zuen joan zen domekan. Jaietan jan-edana banatzen den eraikinaren ondo-ondoan zegoen erretokia da su hartu zuena.

Sutearen abisua jaso ondoren, suhiltzaileak bertaratu, eta sua itzali zuten, gehiago zabaldu aurretik, baina ordurako erretokiaren egurrezko egitura

kiskalita zegoen. Ertzaintza ere bertaratu zen, han gertatuaren berri jasotzeko. Ertzaintzako iturrien arabera, aurkitutako arrastoak hipotesi batera bideratuta daude. Antza denez, kableen barruan egoten den kobrea lortzea zen helburua. Kableak sutara bota zituzten, gaineko plastikoa erre, eta barruko kobrea bistaratu zedin. Prozesu horretan edo ondoren, sua erretokiko egurrera heldu, eta egiturak su hartu zuen.



Jaietan jan-edanaren taberna kokatzen den egituraren ondoan dago erretokia.



Maspe kalean, 40-42 aparkaleku gehiago gorde dituzte bertakoentzat.

Maspera zabaldu dute TAO bidezko sistema

Egoiliarrentzat 200 bat aparkaleku daude guztira

IURRETA Aitziber Basauri Maspe kalean ere jarri dute indarrean Trafikoa eta Aparkamenduaren Ordenamendua (TAO). Egoiliarrentzat 40-42 aparkaleku gorde dituzte bertan. Hartara, orain 200 bat aparkaleku daude gordeta iurretarentzat –Tellitu aparkalekua ez eze, Zubiaurren eta Bidebarrietan ere badute lekua–.

Egoiliarren txartela (45 euro) eskatzera hainbat herritar hurreratu da, Iñaki Totorikagüe-

na jarduneko alkateak azaldu duenez. Bere esanetan, harrera oso ona izan du TAO bidezko sistemak: “Arazo bat konpondu dugu. Iurretarek etxe aurrean aparkatzeko aukera dute orain. Gainera, gune urdina dute auzoetatik herrigunera datozenek ere”. Gogoratu du TAOrik gabeko beste 300 lekutik gora daudela Ibarretxan eta Paduretan. Azken horretan, kamioientzat gordetako lekua irabaziko dute, eta argiteria indartuko dute.

Zabaldu dute deialdia enpresa proiektuen lehiaketarako

IURRETA A.B. Iurretako VII. Enpresa Proiektuen Lehiaketan parte hartzeke eskabideak egiteko epea hasi dute. Urriaren 31 bitartean dago horretarako aukera, eta irabazleak 6.000 euroko saria lortuko du. Herrigunearan enpresak –prozesu eta zerbitzuen arloan ideia berriak ekarriko dituztenak– sortzea du helburu lehiaketak, “aberastasuna eta enplegua sortzen lagunduko” dutenak, merkataritza birgaituko dutenak.

Herrigunearan “espiritu ekin-tzailea” sustatu gura duen lehiaketan parte hartuko duten proiektuek udalerraren errealitatea izango dute aintzat, eta honako kaleotara mugatu beharko dute: Amilburu musikarien plaza, Bidebarrieta, Bixente Kapanaga, Dantzari, Frai Juan Askondo, Maspe, Padureta, Zubiaurre eta Uralde. Kontuan hartuko dituzte, besteak beste, sustatzaileak herrian erroldatuta egotea, eta proiektuaren bideragarritasuna, originaltasuna eta kalitatea.

“Beti dago ondo makina hidrogarbitzaile bat herrira ekarri eta erakustea”

Luis Sutil, Maristak ikastetxeko irakaslea da 1974az geroztik; bilbotarra da jaiotzez, baina Durangaldeko sustraiak dituela dio: Elorrion, Atxondon eta Durangon bizi ostean, erretiratzeko zorian dago; hidrogenoaren mundua sakonengan ezagutzen du



Luis Sutil Maristetako irakaslea ibiliko da bihar herritarren zalantzak argitzen.

> HEZKUNTZA

Nola hasi zen Luis Sutil hidrogenoaren munduan murgiltzen?

Egia esan, beti interesatu izan zaizkit teknologikoki aurreratuak dauden gaiak, eta hau, bereziki, egiteke genuen gauza bat zen. Gainera, Maristak ikastetxeko parte izanik, gainerakoei zure zaletasunak transmititzen saiatzen zara, eta hori ere arrazoietakoa bat izan da.

Hidrogenoak, beste erregai guztiek bezala, bere abantailak eta desabantailak ditu. Zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

Abantaila gisa, gure inguruan dugun hidrogeno kantitatea nabarmenduko nuke, eta ez duela gasik isurtzen ere bai, hau da, ez duela kutsatzen. Bestalde, bere produkzioak dituen kostu altuak azpimarratuko nituzke trabatzat, hau da, elektrolisiaren prozesuari dagozkion kostuak.

Eta zeintzuk dira erregai honen inguruan entzuten diren mito faltsuak?

Ez dakit mitoa den ala ez, baina hidrogenoa zerbait berria dela entzuten da noizbehinka. Hidrogenoa betidanik egon da gure

artean, eta prozesu industrialetan aspalditik erabiltzen da. Entzuten den beste baieztapen bat lehertzeko duen joeragaz lotuta dago, eta egia da hidrogenoa arriskutsua dela gaizki erabiliz gero, baina butanoa eta propanoa arriskutsuak diren neurri berean.

Berdeagon, erregai honekiko apustua egiten duten hainbat fundazio ikusi genituen. Ez duzu uste Euskadin horrelako apustuak egiteko gai garenik?

Jakina ahalmena dugula. Ustedut gai honetan eta beste batzue-

tan aurrerapausoak emateko, gazteak hezteko modua aldatu beharko genukeela, batez ere ikasketak eredu praktikoan oinarrituz; horrela, pertsonen euren kabuz aterako lituzkete ondorioak, eta, ondorioz, euren gaitasunak garatuko lituzkete.

Apurka-apurka bagabiltza ikusten, esaterako, Toyota markak hidrogeno bidezko modeloak garatu dituela. Zenbat itxaron beharko dugu hauek gure kaleetan zehar ikusteko?

Aurtengo ekainean merkatura aterako ote zen zurrumurrua

zabaldu zen, baina erregai bidez dabilen ibilgailu batek, erregaia edozein dela ere, ez du arrakastarik izango berori kargatzeko azpiegitura egokirik ez badago.

Berdeagon ikusi ahal izan genuen makina “hidrogarbitzaile” izango dugu, egun haueetan, Durangoko kaleetan zehar. Zer deritzozu?


Beti dago ondo hidrogenoari aukera ematea, eta haren bitartez lortzen diren erabilerak ezagutaraztea. Gainera, ezarpen programa baten barruan joanez gero, oraindik eta hobeto.

Bihar, Ezkurdi plazan egongo zara hidrogenoa ezagutarazten. Zer ikusi genezake gerturatuz gero?

Esate baterako, jendeak ikusi ahalko du hidrogenoa zertan datzan, uraren eta elektrolisiaren prozesuagaz soilik bateriak kargatzea posible dela eta egunerokotasunean erabiltzen ditugun tresnak erregai honen bitartez mugitu daitezkeela. Gustura argituko ditugu herritarrek izan ditzaketan zalantzak, eta era praktikoa batean erakutsiko dugu zelan funtzionatzen duen.

Zatoz bihar, ekainak 6, eta ezagutu gehiago

Ezkurdi plazan
10:00etatik 14:30era



Hidrogenoz mugitzen den auto telegidatua izango da ikusgai, bihar.



Luis Sutil, Maristetako ikastetxearen kanpoaldean.

Izaroren kontzertuagaz hasiko da, ekainaren 11n, III. Gari Rock jaialdia

Ekainaren 11n, 12an eta 13an izango dira Gari Rock elkarteak antolatzen duen jaialdiko kontzertuak

ZALDIBAR Itsaso Esteban Izaro bakarlarik mallabitarrak Sorgin tabernan eskainiko duen kontzertuagaz hasiko da, ekainaren 11n, III. Gari Rock Fest. Jaialdiko beste lau kontzertuak hartuko dituen gaztetxetik kanpo ere zuzeneko musika zabalteko helburuagaz antolatu dute lehenengo kontzertua Sorgin tabernan. 20:00etan hasiko da Izaroren emanaldia.

Iban Berasaluze Gari Rock elkarteko kideak azpimarratu du, aurreko bi urteetan bezala, Gari Rock Fest "rockzaleentzako eskaintza erakargarria" izatea gura dutela antolatzaileek. "Bereziki rockeroa da, gainera, aurtengo egitaraua", azpima-

rratu du Berasaluzek: "Ekainaren 13an joko duen Los Brazos taldeko musikariek, esaterako, oso maila altuko rock-and-roll klasikoa egiten dute. Getxoztarrak diren arren, Euskal Herrian ez dira oso ezagunak, eta benetan uste dugu merezi duela entzutera etortzeak". Osso bikotea ere ariko da, hilaren 13an, 23:00etatik aurrera, gaztetxean. Kokein eta Eraso! taldeetan ibilitako Haritz Leteren eta Sergio Ruizen taldea da Osso.

Gasteizko Freetangas taldeak eta Durangoko Mockers taldeak ere joko dute jaialdian. Teklatuak eta bateriak osatzen dute Freetangas bikotea, eta ekainaren 12an joko du Zaldibarren.



Sorgin tabernan joko du Izaro mallabitarrak.

Ekainaren 13an, aurreko bi edizioetan egin duten bezala, bazkaritarako elkartuko dira, 14:30ean. Gari Rock elkarteko bazkideak eta nahi duten herritar guztiak daude bazkari horretara gonbidatuta. Hain zuzen, zapatuko bazkalostean

joko dute Mockers taldeko gazte durangarrek, 17:00etatik aurrera, gaztetxean.

Osso eta Los Brazos taldeen kontzertuko sarreraren salneurria 4 eurokoa da, baina gainerako emanaldi guztietako sarreak doakoak izango dira.

II. Berdintasun Planari begira, batzar irekia egin zuten udaletxean

ZALDIBAR I.E.

II. Berdintasun Planaren hasierako zirriborroaren inguruan iritziak trukatzeko batzar irekia egin zuten, martitzenean, udaletxean. 2010etik 2013ra indarrean egon den I. Berdintasun Planaren ebaluazioa egin zuten batzarrean elkartu ziren dozena bat lagunek; balorazio horren arabera zehaztu zituzten etorkizuneko helburuak.

Azken agintaldian udalean Berdintasun Batzorde berezitua eratu izanak gai horrek udaletxean zein kalean ere indarra hartzea ekarri duela azpimarratu zuten batzarrean. Etorkizunera begira, hurrengo plana gizarteratzeko eta berdintasun irizpidea udaleko arlo guztietan txertatzeko bideak zabaltea aipatu dituzte lehen-tasun nagusiztat.

Medikazioaz eta automedikazioaz hitz egingo dute nagusien etxean

ABADIÑO I.E.

Kontsumobidek, Eusko Jaur-laritzako Kontsumoko Euskal Institutuak, *Medikazioa eta automedikazioa* izenburuko berbaldea eskainiko du, datorren astean, Abadiñon. Ekainaren 10ean izango da hitzordua, 17:00etan, San Trokaz nagusien elkartean. Batetik, sendagaiak ondo erabiltzearen garrantzia azpimarratuko dute saio horretan, eta, bestetik, medikamentu bakoitza dagokion dosi eta maiztasunagaz hartzeak daukan inportantzia ere jardungo dira. Automedikazioaren arriskuez ohartaraziko dituzte Abadiño-ko entzuleak, eta sendagaiak beti medikuaren jarraibideen arabera hartu behar direla ere nabarmenduko dute.

Eitua eta Ereña arteko bidea zabalduko dute, eta oinezkoentzako gunea bereizi

Hiru metroko zabalera duen bidea lau metrokoa izango da obren ostean

BERRIZ Amaia Ugalde

Egunero jende ugari ibiltzen da Eitua eta Ereña arteko bidean paseatzen, eta, gainera, hainbat ibilgailu igarotzen dira bertatik.



Eitua eta Ereña arteko bideak hiru metroko zabalera dauka.

Hori dela-eta, bidea egokitzeko, obra hasiko dute ekainean. Hiru metroko zabalera dauka orain, eta lau metrora zabalduko dute. Gero, marra batez bereiziko

dituzte ibilgailuentzako eta oinezkoentzako gunek. Udal arduradunek jakinarazi dutenez, oinezkoek lehen-tasuna izaten jarraituko dute.

Bidea zabalteaz gainera, ur hornidura eta saneamendu sarea hobetuko dituzte. Bideak 600 metroko luzera du, eta obrak errepidean eta Bekoetxea base-rira doan bidean egingo dituztela azaldu dute. Etorkizunean farolak jartzeko, instalazioaren kanalizazioa ere eginda utziko dute, nahiz eta oraindik ez dagoen aurreikusita bertan argiteria berria jartzea.

Ekainean hasi, eta lanak abuzturako amaituta egotea aurreikusi dute udal arduradunek. Obrak 165.000 euroko aurrekontua izango du.

280 umek parte hartuko dute domekako euskal dantzen jaian

GARAI Markel Onaindia

Domeka honetan, hilaren 7an, umeen euskal dantzen jaia izango dute Garain. Udalak antolatu du ekitaldia, eta herriko ume dantzarietz gainera, kanpotik ere hainbat etorriko dira. Guztira, 280 bat umek parte hartuko dute jaialdian. Durangaldekoak izango dira gehienak, baina Beasaindik (Gipuzkoa) ere etorriko da dantza talde bat.

Dantzariak, 12:30ean, kalejira egingo dute, eta 13:00etan hasiko da dantza alardea, plazan. Gero, herriko etxe, elkar-te eta tabernetan bazkalduko dute umeek, garaitarrek gonbidatuta. Arratsaldean jarraituko du jaia, musika ipiniko duen DJ batez.

hitz liburutegia

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburutegia.com

Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

Jakoba Errekondo (2015)	Alberto Ladron Arana (2015)	Euskal Barronkensemble (2014)

ekin ner group

ekin S. Coop.
Arriagane industrialdea (Boroa auzoa)
48340 Zornotza (Bizkaia) Spain
www.ekin.es

Produkzio fabrikak Brasilen, Indian eta Mexikon

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

Kontzejuzarra izeneko erabilera ugari gunea inauguratu dute

Elizalde plazako eraikinean, obrak orain dela gutxi amaitu dituzte



Kaleratu berri duen liburua aurkeztu zuen Jakoba Errekondok. Valentin Mugarza

MALLABIA Jone Guenetxea Elizalde plazan, elizara atxikitako eraikinean sortutako askotariko erabileretarako gunea inauguratu zuten eguaztenean. Kultur Hamabostaldian antolatutako hitzordu bat baliatu zuten horretarako: Jakoba Errekondoren berbaldia, hain zuzen ere. Ondoren, bertaratutakoak luntxean bildu ziren. Kontzejuzarra izena jarri diote guneari, sasoi batean espazio horretan udaletxe zaharra zegoelako.

Udaletik jakinarazi dutenez, Kultur Hamabostaldiko ekitaldi batzuk Kontzejuzarra eraikinean antolatuko dituzte; esaterako, Mikel Pradera, Gorka Arrizabalaga eta Igor Astarloa txirrindulari ohien ekainaren 12ko hitzaldia.

Azoka, herriko baseritarren erakusleho, domekan

Eguerdian, 'Txikito de Mallabia' omenduko dute

MALLABIA J.G.

Ortuariak, gazta, ogia, euskal pastela eta beste hainbat produktu batuko ditu, domekan, Mallabiko azokak, 10:00etatik aurrera. Herritik kanpoko ekoizleak ere gonbidatu dituzte: bitxigileak, egurra lantzen duen artisau bat eta Mendaroko

txokolatea. Guztira, hamasei postuk osatuko dute azoka. Era berean, Mallabiko artisauak ehoziri-lana, puntua eta kakoratz-lana zelan egiten den erakutsiko dute. Plazan, berriz, abereen erakusketa prestatuko dute. Azoka inguruan, Nahikari elkarteak antzinako ema-

kumeen ogibideen antzezpena egingo du. Dantzarien erakustaldiak azokako giroa alaituko

Nahikari emakume elkarteak antzinako euskal emakumeen antzezpena egingo dute

du. Gero, 13:00etan, *Txikito de Mallabia* omendu ostean, txirrindularien eta korrikalarien arteko desafioa egingo dute.

Ekainaren 12an zabalduko dituzte kanpoko igerilekuak

ELORRIO Markel Onaindia Elizaldeko kanpoko igerilekuak ekainaren 12an zabalduko dituzte, udako denboraldia-ri begira. Dena prest egoteko hiru obra egin ditu udalak; euriteen ondorioz galdara gela eta aldagelak konpondu behar izan dituzte, atsedean hartzeko berdegunea handitu dute, eta herrigunetik Elizalderaino doan bidea zabaldu dute. Azken obra hori oinezkoen segurtasuna hobetzeko egin dute. La azaldu du Joseba Mujika jarduneko alkateak. Izan ere, oinezkoak eta autoak pasatzen dira bertatik. Azken lanak egiten dabilta, eta hilaren 11rako prest egongo da bidea.

Buruagak (EH Bildu) ohartarazi du "aurreikusitako defizita hirukoiztu" egin dela

Idoia Buruagak (EH Bildu) EAJren gestioa kritikatu du: "Pena da, proiektua korrika egiteagatik, igerilekuak berriro martxan ipintzeko 100.000 euro baino gehiago erabili behar izana". Gainera, adierazi du gobernu taldeak ez diela esan "benetako emaitza ekonomikoa" zein den, baina ohartarazi du "aurreikusitako defizita hirukoiztu" egin dela.

> DURANGALDEA ASTEON

Presoen senideen berbaldia

IURRETA > Sare mugimendu herritarrak antolatuta, herriko preso politikoen senideek berbaldia eskainiko dute datorren egunean, hilaren 11n. Kazetari batek egindako galderei erantzunez, sakabanaketak euren bizitzetan duen eraginaz egingo dute berba senideek. 19:00etan hasiko da ekitaldia, Goiguria kulturgunean.

Auzolana egingo dute igerilekuan

ATXONDO > Udalak deituta, igerilekuak atontzeko auzolana egingo dute bihar, 10:00etan hasita. Garbiketa orokorra egitea izango da zeregina: adibidez, berdegunea eta aldagelak garbitzea edo pintaketa lanak egitea. Udalak azaldu duenez, auzolanaren ostean hamaiketako bat egongo da parte-hartzaileentzat.

Bigarren Joste Eguna dator

DURANGALDEA > Gure Esku Dago dinamikaren barruan bigarren Joste Eguna izango dute Berriz eta Zornotzan. Berriz, gaur, 19:00etatik aurrera oihalak pertsonalizatu eta josi egingo dituzte Olakueta plazan. Zornotzan domekan, 12:30ean, oihal eta argazki erakusketa dago udaletxeke plazan.

Hauteskunde osteko artikuluar buruzko azalpena

Azalpen bat ematea gustatuko litzaidake aurreko astean ANBOTOn egin nuen kritika baten harira, nire inguru hurbilean gaizki-ulerteretarako parada ekarri baitu aste honetan. Hau da esaldia: "Ezker abertzaleari hainbat inertzia zaharrek inportzeko ordua iritsi zaiola iruditzen zait; pankartaren atzean inongo eragin-kortasunik gabe esentziak gordetzera mugatzen den ezker abertzale jakin bati, zorionez gehiengo ez den horri, albo batera egiteko garaia iritsi zaio".

Pankarta metafora bat da, ez da pankarta fisikoa, eta lelo zaharrei edo ideia absolutuei egiten die erreferentzia, ez pertsonari. Alegia, ez da herri bateko ez inongo enkarteladei buruzko erreferentzia; aldiz, ezker abertzale zabalean leloak gogortuz esentziak gordetzera mugatzen diren ideiei (eta ez pertsonari) egiten die

erreferentzia, modu orokorrean eta gehiengo zehaztu gabe. Horregatik, EH Bilduk fronte zabalean ideia horiei albo batera egiteko garaia iritsi zaiola esan nuen, ez inoren purga egin behar denik edo inoren kanporatu behar denik. Inondik ere.

Batzuek adierazi nahi nuena ondo uler-tu dute, beste batzuek ez. Horrek adierazten du esaldiak nahasketak horretarako beti eman duela, eta, beraz, ez nuela guztiz ongi adierazi esan nahi nuena. Kritikak ez dira inoiz ez guztiz justuak, ez orekatuak, beti orokortu eta ahazten dituztelako nabardurak, are gehiago halako artikululu laburretan. Baina gaizki adierazi edo ulertzen badira, norbait mintzeko parada ematen dute, eta inorentzat ez da desiragarria. Hortaz, gera bedi hor nire hitzen azalpena eta esanahia.

Durangoko Udaleko garbiketa-langileak blindaturik

Apirilaren 28an, aho batez onetsi zen Durangoko Udaleko baldintza-orri bat, udal eraikinak eta lokalak garbitzeko zerbitzua arautzeko. ELA pozik agertu da baldintza-orriari emandako onepena hain erabatekoa izateagatik, sindikatu horrek idatziz aurkeztu zituen eskari guzti-guztiak bertan jaso dira eta. Gure eskarien edukiak honako hauek dira: azpikontratatu langileei aplikatu beharreko gutxieneko soldata eta lan baldintzak ezartzea, enpresa aldatetetan subrogazio eskubidea aitortzea, enpresaren ez-betetzeen aurrean zigor araubide bat onartzea, eta kontratua hutsaltzeko arrazoiak arautzea. ELAren iritziz, eduki horiek baldintza-orrietan jaso izanak blindaturik utzi ditu langile horiek lan erreformatik; izan ere, soldata-dumpinga galaraziko du, zerbitzuaren esleipena

hartu gura duten enpresek aurretiaz jakingo dute zein diren bete beharreko baldintzak, eta lehia desleiala eragotziko du. Gainera, soldatak eta lan baldintzak hobetzera joan behar den diru publikoa benetan horretan erabiltzea bermatuko da; irabazien tarte lizitazio prezioan jasota dago eta. Azken batean, ELA azaldu eta udal talde guztiek onartu duten proposamenaren asmoa ez da besterik lan baldintza duinak bermatzea baino; eta, bide batez, diru publikoaren erabilera modu egoki batez kontrolatzea. Helburu berberaz ELA LHE bat (Legegintzako Herri Ekimena) aurkeztu zuen Gasteizko legebiltzarrean, EAEko 110.000 herritarren sinaduren babesaz. Bilatzen dugun helburua lehen adierazitako berbera da. Dena dela, Legebiltzarreko kasuan ez dirudi taldeek aho batez onartuko dutenik.

Andoni Olariaga

Arrate Elkoro, ELA sindikatuaren izenean



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9, 48215
• Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Berbaz

Ion Ugarte | Fumbarriko langilea (LAB) **Ibon Ruiz** | LAB

“Langileon osasuna ezin da ukitu, ezin dugu horregaz jolastu”

Ahal diren neurri guztiak hartu, eta silikosisa gelditzea aldarrikatuko dute bihar Fumbarriko langileek LABek deitutako manifestazioan; gaixoentzat baldintza egokiak eta beste inor ez gaixotzea eskatzen dute



> BERBAZ Aitziber Basauri Galdategietako eta marmoldegietako gaixotasuna da silikosisa, silizea arnastaren ondorioz, birikei eragiten diena. Biriken gaitasuna murrizten du, atzera bueltarik gabe. Fumbarri hamaika langileri diagnostikatu diote silikosisa 2011tik gaurdaino. Horietako bi dira Ion Ugarte eta Ibon Ruiz. Lanerako ezintasuna onartu diote Ruizi; Ugarte, berriz, lanpostuz aldatu dute. Ekainaren 6rako, manifestaziora deitu du LABek, egoera salatzen. Enpresatik irtengo dute, 12:30ean.

Silikosisa diagnostikatu diote hamaika langileri. Egoera latza bizi duzue Fumbarri.

Ion Ugarte: 2011tik gaurdaino hamaika langileri diagnostikatu diote silikosisa, eta, aurten, bi langile gehiago bideratu dituzte mutua Silikosiaren Institutu Nazionalera (Oviedo, Asturias) azterketa egiteko, gaixo egon daitezkeen susmoa hartuta. Eta badakigu, 2011 baino lehen, gutxienez beste lau kasu egon zirela.

Horren aurrean Fumbarri hartu izan du neurririk?

I.R.: Segurtasun kolektiborako neurririk ez du hartu. Oraindik

ere altuegiak diren silizearekiko esposizioak bajatzeko neurriak beharrezkoak dira, eta hori eskatzen diogu enpresari, ez dadin inor gehiago gaixotu. Bestalde, silikosisidun langileak mantentzeko konpromisoa ere eskatzen dugu, beti ere, toki egokietan. 2011. urte amaieran hasi ginen, eta 2012an kasu gehiago agertu ziren. Batzarrak eskatu genituen neurriak hartzeko, baina ez genuen erantzunik jaso. Batzuo asko larritu zitzaigun gaixotasuna urte eta erdian.

I.U.: Neurriak hartu eta egoera hobetzeko, Osalanera jo genuen, eta egindako txostenean jasotako zenbait gauza bete dituzte enpresari. Hala ere, gauza bi ditugu argi: ezin da inor gehiago gaixotu, eta gaixo gaudenok ezin

“**Altuegiak diren silizearekiko esposizioak bajatzeko neurriak beharrezkoak dira**”

gara kalera joan. Adibidez, ni lan egiteko gai naiz, baina silizearekiko esposizioa egokia den toki batean. 50 urtegar kalean aurkitu naiteke, eta ni metalurgia arlokoa naiz. Damoklesen ezpatapean gaude.

Lan Ikuskaritzak isuna ere jarri izan dio enpresari.

Ibon Ruiz: Fumbarriren kontra salaketa sartu genuen 2011n, eta Langile Ikuskaritzak onartu zuen silizearekiko esposizio altuaren aurrean enpresari urtean neurririk ez hartzearen eraginez gaixotu zirela langileak. Prestazio errekarria onartu zuen, eta Fumbarri 20.000 euroko isunagaz zigortu zuen.

Prestazio errekarria hori silikosisa dutenentzat lortutako eskubidea da.

I.R.: Bajan gauden tartean edo lanerako ezintasuna onartuta dugunoi %30eko prestazio errekarria ordaintzen zaigu.

Silikosiak birikei eragiten die, silizea arnastaren ondorioz.

I.R.: Bai, ez du atzera bueltarik. Ezin da sendatu; bere horretan mantendu daiteke edo okertu. Arnasteko zailtasunak ditugu.

I.U.: Biriketako tuberkulosisa

biriketako gaixotasun buxatzaila edo minbizi bihurtu daiteke. Buruari buelta asko ematen zaizkio. Gogorra da.

Silikosiaren kasuan, zehaztuta dago zer egin daitekeen.

I.R.: Oso silize maila altuak agertu direnetan, mutua gomendatu izan du neurriak hartzea, baina enpresari ez du ezer egin. Orain ematen du zerbaitean hasi dela. 2015ean ez du izan aurreikusita inbertsiorik segurtasunean, gero zenbait aldaketa ikusi ditugun arren.

I.U.: Egia da enpresari hartu emanak ez direla oso onak. Informazio eta komunikazio falta dago. Ez goaz enpresari kontra, baina onartu behar du arazo hor dagoela eta aurre egin behar zaiola denon artean.

“**Komunikazioa, inbertsioa eta ez dezatela inor kaleratu da eskatzen duguna**”

Neurriak hartzeko eskatu duzue.

I.U.: Bai, eta 2016ra bitarteko plangintza aurkeztu digute, baina ez da nahikoa.

I.R.: Gainera, oso astiro doa. 2012tik gabiltza, eta orain hasi dira: oso gutxi da egindakoa.

Fumbarri ez da kasu isolatua.

I.R.: Horrelako ehunekoetan bai. Kasu solte batzuk ezagutu izan ditugu urte batzuetatik hona, baina horrenbeste... Orain hasi gara silikosisa gehiago ezagutzen. Orain hasi dira agertzen lehengo bekatuak. Meatzaritzagaz lotuta ezagutu dugu gehiago, marmolgintzagaz... Guk 25 urte daramatzagu Fumbarri lanean. Gaixotasuna azaldu artean ez dugu informaziorik izan.

I.U.: Hamabost urtez arnastu behar da silizea gaixotasuna agertzeko.

Fiskaltzak esku hartu du orain.

I.R.: Dirudienez, Osalanen txostenak eta Lan Ikuskaritzak esandakoa kontuan izanik esku hartu du: gaixo portzentaiagatik, egoerak arduratuta... Ez dakigu zer gertatuko den. Auzitegiko medikuak deituta Bilbora joan ginen, eta, orain, Durango-ko epaitegira deitu digute.

I.U.: Ez dakigu fiskaltzak zer egingo duen. Zerbaite ikusiko zuen. Neurriak hartzea bultzatu dezake horrek.

Silikosiak dakarren arriskua desagerraraztea eskatzen duzue.

I.R.: Zerora ezin dugu jaitsi, baina maila altuak bajatu bai. Lanpostu batzuetan esposizioa oso altua izan da. Produktio mailan inbertsio altuak egiten dira, eta oso ondo deritzogu, baina, proportzioan, segurtasun arloan gutxi inbertitzen da.

I.U.: Komunikazioa, inbertsioa eta ez dezatela inor kaleratu eskatzen dugu. Segurtasunaren arloan, enpresari mentalitatea aldatu behar da; denona aldatu behar da.

Langilearen erantzukizuna ere bada segurtasuna.

I.U.: Bai. Egun bitan ez da aldatzen. Guk ere ikasi egin behar dugu aurpegi-babesagaz lan egiten, segurtasun neurriak erabiltzen... Enpresari eta langileen partetik egin beharreko lana da.

Zer eskatuko duzue bihar?

I.R.: Silikosisa gelditzea, ahal den neurri guztiak jarrita.

I.U.: Gaia gizarteratu nahi dugu. Langileon osasuna ukiezina da; ezin da horregaz jolastu.

INGURUMEN GEHIGARRIA



ZELULOSAZKO ONTZIAK
BIODEGRADAGARRIAK
ETA BIRZIKLAGARRIAK



www.soul-cemosa.es



cemosa

CELULOSAS MOLDEADAS, S.A.

CEMOSA Autonomía, 2 - ATXONDO (Bizkaia)
Tel.: 946 231 717 - Faxe: 946 231 799

“Konposta ona izango da sororako eta loreentzat”

Goiuri eta Unai Sopelanak autokonposta egiten dute Iurretako baserrian

> KONPOSTA M. Onaindia

Amankomunazgoak bultzatuta, autokonposta lantzen hasi ziren duela urte bi Iurretako eta Abadiñoko hainbat baserrian. Goiuri eta Unai Sopelana izan ziren parte hartzera animatu zirenetako bi, eta Iurretako Gastañatza auzoan duten baserrian konpostagailua ipini zuten. Zabor organikoa birziklatzea da helburua, gero luraren ongarri gisa erabiltzeko.

Kaleko bosgarren kontaineurrean ez bezala, Goiuri Sopelanak azaldu du zabor organiko guztia botatzen dutela konpostagailura: papera, plastikoa eta beira ez den beste guztia. Abantaila dela uste du: “Ideia ona da. Zabor gutxiago sortzen duzu; izan ere, guk dena botatzen dugu horra, kozinatutakoa ere bai”.

Konpost bihurtzen

Urte bi hauetan egunero materia organikoa bota eta bota ibili arren, konpostagailua ez da bete, gezurra badirudi ere. Materia desegin egiten da, eta botata-

ko adaxka eta hosto sikuei esker konpost bihurtzen da, ongarri. “Oraintxe gaude pentsatzen ea egun batean astia hartu, dena hustu, eta berriro martxan ipintzen dugun”, esan du Goiurik. Etekinari balioa eman dio: “Lan

Urte bi hauetan, egunero materia organikoa bota eta bota ibili arren, konpostagailua ez da bete

egin behar da, baina suposatzen da, azpiko hori ateratzean, balioko zerbait edukiko dugula. Konposta ona izango da sororako eta loreentzat, eta askoz zabor gutxiago egiten dugu”. Horregatik, sistema probatzera animatzen ditu herritarrak.

Sistema eroso

Sistema eroso dela eta gustura dabiltzala dio Goiurik. Neba-arreben artean arduratzen di-

ra konpostagailuaz, “gehienbat Unai”, arrebaren esanetan. Eguneroko lana dela dio Unai, baina erraza dela: “Etxean zaborrontzia hartu, konpostagailura bota, etxera bueltatu, garbitu... Batzuetan konpostari buelta batzuk ematen dizkiogu”. Hondakinak pilatuta egon arren, konpostagailuaren inguruan ez da usain txarrik nabari.

Sikuaren bila

Goiuriren arabera, belar eta hosto sikuak topatzea izaten da gaitzena: “Udazkenean orri sikuak-eta badude, baina gero...”. Tindagai bako eskuzapiak ere botatzen dituzte erabili ostean, hori ere materia sikutzat hartzen delako.

Ingurumenaren alde egiteak kontzientziarazioa eta lana eskatzen ditu. Sopelantarrak lez, hainbat herritar dabilta autokonpostean. Baina baserri gune batzuetan oraindik ez dago papera eta plastikoa birziklatzeko kontainerrik; beraz, Amankomunazgoak ere badu lana.



Goiuri Sopelana eta Unai Sopelana, konpostagailua alboan dutela.




Ingurumena zaintzen dugu

Gure konpromisoa ingurumena zaintzea da, betiere, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta zerbitzu iraunkor eta kalitatekoa eskaintzeko



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
 Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeaguas.com



EDERTASUN GIDA



Amaia Salazar. Nukleo.

Ilea zaintzeko eskaintza berezia

Elorriko Nukleo ile apaindegian ilea zaintzeko eta udarako prestatzeko eskaintza daukate.

Ilerako tratamendu berezi bat daukazue Nukleon, ezta?

Bai. Botox-Hair Plasma tratamendua hidratazio eta nutrizio tratamendu berritzaile bat da. Lehenengo emanalditik nabaritzen da, ilearen barnealderaino doalako. Zenbat eta gehiagotan egin, orduan eta hobeto berreskuratuko dugu zigortutako ilea.

Uda badator. Ilea zaintzeko sasoi al da?

Gure ile apaindegian igarri dugu uda baino lehenago jendeak ez duela ilea zaintzen. Guztiek esaten dute uda ostean egingo dituztela tratamenduak, baina orain eginez gero, udan jasoko dituen erasoetatik babestuko dute ilea, eta ez da horrenbeste sikatuko. Bestela, gero zailagoa izango da kaltetutakoa berreskuratzea.

Gainera, tratamenduagaz eskaintza berezia egiten duzue, ezta?

Bai. Nukleon daukagun proposamena honako hau da: tratamendu bi eginez gero, bat doan izango duzu. Bestalde, etxean zainketa egiteko produktua eramaten baduzu, tratamendu bat doan edukiko duzu ile apaindegian.



ILE APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK



DIETETIKA eta NUTRIZIOA

Ana Camarero
Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

Lehen 55€ orain 38,50€

%30eko beharapena aurpegia argitzeko tratamenduan C bitaminarekin
Ekainaren Setik 30era

Goienkalea, 16-1. esk. • 48200 Durango
Tel.: 946 817 380 • Mug.: 639 375 474

HIRU FISIOTERAPIA ZENTROAREKIN BATERA

Nerea Sarriugarte
Dietetika eta nutrizioa

Antso Estegiz zumardia, 4
48200, DURANGO
nesarriugarte@gmail.com
666 850 469



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Bego Goitia | 'Argi' filmeko ekoizpen arduraduna | Durango, 1983**“Enpresa egiturarik barik, profesionalen elkarlanetik sorturiko proiektua da filma”**

Iratxe Mediavilla elorriarrak zuzenduko duen 'Argi' filmaren ekoizpen taldearen arduraduna da Goitia

> ZINEMA Itsaso Esteban
Zer eginkizunetan zabilta 'Argi' filmean?

Ekoizpen taldearen arduradun lanetan nabil, beste hainbat lagunekin elkarlanean. Disei-media komunikazio agentziako bazkide naiz, eta koordinazio lana egiten dut proiektu honetan: babesletzak eta finantziario bideak lortu, filmatze egunera behar den guztia –tresneria, lokalizazioak, jantziak– prest dagoela ziurtatu...

Zenbat jende dabil 'Argi' filmaren lantaldean?

Profesional askoren kolaborazioak bultzaturiko proiektua da hau, ez dago atzean ezelako ekoiztetxe pribaturik. Teknikoak eta aktoreak batuz gero, 40-50 lagun inguru gabilta.

Zerk bultzatu du jende hori proiektuan kolaboratzera?

Hainbat arrazoi daude. Batetik, ikus-entzunezko munduan gauzak egiteko aukagun premia dago. Euskal Herrian garatzeke dagoen industria da; inguruan ez dago proiektu askorik. Bestalde, Iratxek bere ibilbidean profesional askoren proiektuetan lagundu du, eta orain laguntza

hori bueltan jasotzen dabil. Baina, batez ere, uste dut proiektu erakargarria dela: film luze bat da, Elorrion filmatuko da, horrelako proiektu handi bat Durangaldean egiten den lehenengo aldia da...

Hasieratik zabilta proiektu honetan, eta, hain zuzen ere, profesionalak ekimenera erakartzea izan da zure lanetako bat.Bai, hori izan da lehenengo lanetako bat. Iratxe Mediavilla zuzendariak ibilbide luzea du hainbat filmetako arte departamentuetan –*Bypass*, *Tres mentiras* eta *Camera obscura* filmetan, esaterako–. Jende asko ezagutzen du, eta lagun asko erakarri du proiektura.**Iratxegaz lan egin izan duzue?**Askok bai. *Camera obscura* filmaren grabazioan ezagutu genuen elkar; ni ekoizpenean ibili nintzen lanean, eta bera arte departamentuan.**Zerk animatu zaituzte honelako egitasmo bat abiatzera?**

Enpresa egiturarik barik, hainbat profesionalen elkarlanaren bitartez sortzea posible dela ikusteak animatu nau ni, batez



Disei-media komunikazio agentziako bazkidea da Bego Goitia.

ere. Erronka horrek erakarri nau, abentura horren parte izateak. Mediavilla zuzendariaren kasuan, Arriolako 24 Ordu Digitalean lehiaketan *Il marquesse* filmagaz saria jaso zuen bere lantaldeak. Sariak beste eskala batean zerbait egiteko gogoia piztu zien, proiektu handiago bati ekiteko indarra eman zien.**Zer aurrekontugaz jardutea espero duzue?**Oso oso txikiagaz. Neurria hartzeko: *verkami.com* webgunean abiatu dugun finantzaketa kolektibo bidezko kanpainagaz 5.000 euro lortzea ipini dugu helburu. Hainbat enpresak utzi dizkiguten baliabideak gehituz gero, 8.000 euroko aurrekontua izango da, gehienez ere. Materiala alokatzeko, eta garraio eta elikadura gastuak ordaintzeko erabiliko dugu diru hori. Gehienok profesionalak garen arren, musu truk gabilta lanean.**Finantzaketa kolektiboaz gainera, ekainaren 6rako egun osoko jaialdi bat antolatu duzue.**

Bai, izan ere, horrelako proiektu bat aurrera ateratzeko ezinbestekoa da jendea erakartzeko gaitasuna izatea, eta Iratxek ahalmen handia dauka horretan. Jendeari proiektua azaldu, eta laguntzeko aukera daukala adierazi gura diogu biharko jaialdiagaz. Azoka, ipuin kontalariak, film laburrak, kontzertua... Denetik izango da Elorrion egingo dugun Kulturaren Egunean.

Enpresa batzuek babesletzagaz lagundu dizute.

Bai; Alzola Basque Water, Fortaleza kafea, Bizkaia Esnea eta herriko hainbat merkatari txikik lagundu digute.

Uztailean, Elorrion egingo duzuen grabaziorako dena prest?

Aurreprestaketa lanetan gabilta, hain zuzen. Filmazioa lau

astekoa izatea aurreikusten dugu. Aurrekontu murrizta daukagunez, lokalizazio gutxitan –elkarrengandik hurbil daudenetan– behar egitea pentsatu dugu. Adibidez, Elorrioko denda zahar bat izango da leku horietako bat.

Zertan datza filmaren istorioak?1970eko hamarkadan kokaturiko istorioa da. Lekuz eta garaiz kanpo sentitzen den neska baten istorioa da *Argi* filmean kontatuko duguna. Itotzen duen herri txiki horretatik alde egin gura du, eta bere barne borroka hori erakusten du istorioak.**Durangaldeko jendea ere bada go talde artistikoan.**

Horrela da, bai. Eneko Sagar-doyk antzeztuko du protagonistetako baten papera, Felix Arkarazok ere parte hartuko du, eta filmeko musika Antton Uriarte musikari elorriarrak egingo du.



Ander Berrojalbiz, Maider López eta Virginia Gonzalo dira Khantoriako kideak.

Ilustrazio garaiko ganbera musika bildu du Khantoriak azken diskoan

Ekainaren 11ko eta 12ko kontzertuetan aurkeztuko du Khantoriak proiektu berria

> MUSIKAKhantoria hirukoteak *Klabezinbaloa lagunduz* izeneko diskoa aurkezteko lehenengo emanaldia eskainiko du Durangoko Kuruzesantu museoa, ekainaren 11n, 19:30ean. Hurrengo egunean, 20:00etan, Bilboko Enkarnazio elizan eskainiko du bigarrena. Egun bi horietan ipiniko ditu taldeak disko berriaren lehenengo aleak salgai.

Ilustrazio garaian, teklaturagaz jotzeko Euskal Herrian idatzitako ganbera musikako konposizioak bildu dituzte disko berrian Ander Berrojalbiz

biolinista durangarrak, Maider López biola-jotzaileak, eta Virginia Gonzalo klabezin-jotzaileak. Juan Andrés Lonbideren (1745-1811) partiturak oinarri hartuta sortu dituzte Khantoria-koek kantuok. Euskal Herrian dagoen klabezin zaharrenagaz, 1743. urteko instrumentuagaz, egin zuten grabazioa.

Musikariek azaldu dutenez, “entzulea XVIII. eta XIX. mendeen arteko ganbera musikara gerturatzeko asmoz” sortu dute *Klabezinbaloa lagunduz* diskoa. Gainera, musika jasotzat hartzen dena eta herri musika

askok pentsatzen dutena baino hurbilago daudela erakutsi gura dute Khantoria taldekoek, eta, horregatik, herri kantak ere eskainiko dituzte datorren astetik aurrera emango dituzten kontzertuetan. Khantoriak ohi duen bezala, musikaren historiagaz loturiko taldearen ideiak, hipotesiak eta kanten inguruko azalpenak ere emango dituzte zuzenekoetan.

Europako musika eskola entzutetsuenetan trebaturiko hiru musikari gaztek osatzen dute 2008tik antzinako musika sortzen duen Khantoria hirukotea.

> ANTZERKIA Itsaso Esteban Iurretako kale eta plazetara sei antzezlan ekarriko ditu, ekainaren 18tik 21era, Kalez Kale antzerki jaialdiaren bederatzigarren edizioak. Trapu Zaharra taldeagaz *La Conga* ikuskizuna eskainiko duen Santi Ugalde aktoreak, Iñaki Totorikaguena Iurretako alkateak eta emanaldi horien antolakuntza lanetan dabilen *Garbitxu* aktoreak aurkeztu dute aurtengo eskaintza.

Leioako Umore Azokan saria jaso berri duen Markeliñe taldearen *Andante* antzezlanak zabalduko du programazioa, ekainaren 18an. Askondo kalean eskainiko du Zornotzako taldeak testurik bako ikuskizun ibiltaria, 18:00etatik aurrera.

Santi Ugalde eta Maribel Salas aktoreek *La conga* eskainiko dute, ekainaren 19an, 20:00etan, Askondon. Umore beltzeko ikuskizuna da: afiliatu asko galdu dituen sindikatu batek denbora luzez langabezian egon diren pertsonentzat antolatzen duen tailer bateko gorabeherak kontatzen ditu. Trapu Zaharra taldearena baino lehen, Asier Kidam magoaren txanda izango da, ekainaren 19an, 18:00etan.

Sei antzezlan eskainiko dituzte, ekainaren 18tik 21era, Iurretan

Kalez Kale jaialdiaren bederatzigarren edizioan sei antzerki obra izango dira



Trapu Zaharra taldeko Santi Ugalde aktoreak parte hartu zuen programazioaren aurkezpenean.

Ekainaren 20an ere, emanaldi bi izango dira Iurretako Kalez Kale jaialdiaren barruan; *Lo que nos dejaron* zirku eta akrobazia ikuskizun berritzailea eskainiko du Sainete taldeak, 18:00etan,

Amilburu plazan, eta iaz eguraldi txarragatik bertan behera utzi behar izan zuen *Rico rico* antzezlan zirikatzailearen emanaldia eskaini ahalko du Salitre antzerki taldeak, 20:00etan.

Gainera, ohi bezala, Musika-ren Nazioarteko Egunagaz bat egingo du Kalez Kale jaialdiak, ekainaren 21ean. Patxin eta Potxin pailazoak gonbidatu dituzte azken emanaldirako.

GEURE DURANGALDEA

JOSUNE ARANGUREN

Kultura teknikaria



Ogia eta zirkua

Kultura hiri handietako gaztazkak estaltzeko tresna gisa erabiltzen dela kritikatu du Manuel Delgado Bartzelonako antropologia irakasleak, *2016 desokupatu* mugimenduak gonbidatuta, Donostiako datorren urterako ekimenen harira. Kirolak ere funtzio bera betetzen du?

Zein da Errege Koparen finalaren aitzakian antolatutakoaren onura? Hango *hirian* eta hemengo *ziutatean* bildutakoek sinboloak astindu dituzte, eskuz eta ezpainez. Ostein bertaratuei galdetuta, elkartasuna, emozioak partekatzea eta antzeko erantzunak eman dituzte guztiek. Freudek erakutsi zigan gizabanakoa taldekide bihurtzean, sentimendu batek gidatzen duela, eta ordura arteko printzipioak baztertzeko gai da, onartze akritikoaren alienazio gozoan.

Gainera, hor ditugu futbola erlijioaren ordezkia dela herriaren opio rolerako diotenak. Eta Borges futbola herrikoia dela ergelkeria herrikoia delako esatean. Eta sexismoa... Eta bortxakeria... Tentazioa handia den arren, ez da hori gure gaurko eztabaidagaia, halere, baizik eta talde, herri, bandera eta tribu-ikurrekin identifikatzea. Gizakiok joera omen dugu gainontzekoen portaera kuestionatu barik imitatze. Menpeko bihurtu denak banakotasuna galdu du.

Ados ereserki eta banderak ez inposatzearen eskaera edo aldarriaz. Inorenak ez. Eta eraikin monumentaletan gutxiago. Eta diru publiko gutxiago. Neurrian dago bertutea. Baina instituzioak eta enpresa handiak festa horren bultzatzaileen *gabarrara igo* badira, ogia eta zirkua seguru! <http://josunearanguren.blogspot.com.es/>

Txistu kontzertua eta sari banaketa, San Agustinen

Silboberri elkarteak antolatu du biharko emanaldia



Sahatsa taldearen ikuskizunagaz amaituko da emanaldia.

> MUSIKA

Durangoko Euskal Astearren barruan Silboberri elkarteak antolatzen duen kontzertuan banatuko dituzte Durango Hiria lehiaketako sariak. Ekainaren 6an, 19:30etik aurrera, San Agustín kulturunean izango da hitzordua. Hiru zatiko emanaldia izango da; lehenengoan, Jon Ansorena eta Maite Sagastibeltza txistulariek, Maria Zubimendi akordeoilariak eta Gorka Catediano perkusionistak joko dute. Mikel Chamizoren, Gabriel Erkorekaren, Sydney Hodgkinsonen eta David Cantalejoren obrak eskainiko dituzte emanaldiaren zati horretan.

Kontzertuaren atsedendian egingo dute Silboberri txistu elkarteak bi urtetik behin antolatzen duen Durango Hiria txisturako konpizizioen lehiaketaren sari banaketa ekitaldia. Durangoko txistu elkarteak jakinarazi duenez, David Cantalejoren

Akelarre lanari emango diote, bihar, 3.000 euroko lehenengo saria; Francisco Jose Dominguez *Seis miradas* obrari 1.500 euroko bigarrena; eta David Cantalejoren *7 miniaturas para txistu y piano* obrari 750 euroko hirugarren saria.

David Cantalejoren 'Akelarre' lanari emango diote, bihar, Durango Hiria lehiaketako 3.000 euroko sari nagusia

Doako sarrera daukan biharko emanaldia biribiltzeko, Azkoitiako eta Azpeitiako dantzariak osatzen duten Sahatsa taldeak *Gure ikuskizunen laginak* izenburuko lana eskainiko du. Lapurdiko makil jokoa eta kontradantza, aurrekua eta erromeria eskainiko dituzte, besteak beste.

Uda honetan

PLATERUEN PLATERAK

Bariku eta zapatu iluntzeetan

PLATERUENA

Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net

Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA

ASTELEHENETIK OSTIRALERA

THE PROWLERS

GRADE 2

ORRAGA, 778 U DARRAOK

SMOKING BARRELS

EKAINAK 5

20:30etan

THE PROWLERS + GRADE 2 + ORRAGA + 778 + SMOKING BARRELS + OLBARKO

PELONES

MIKI KEMAN BEZUR-MUINA, OBRATU BILBA MUKA

EKAINAK 6

21:00etan

ZEBEL + HORA 13 + GUDA DANTZA

KONTZERTUA

EKAINAK 7

19:00etan

ARYMUX

DANTZA

Nora Ordoñez | lurreta, 1988 | **Iera Gerrikabeitia** | Zornotza, 1983 | **Nerea Gomez** | lurreta, 1982

“Ezkurdiri interes handia eta gauzak ondo egiteko gogoia ikusten dizkiogu”

Iurretako futbol taldean ibilitako jokalariek ilusionatuta daude Ezkurdin hasiko duten proiektuari begira



> FUTBOLA Joseba Derteano Emakumeen Iurretako futbol taldea desagertu egin da, 25 urteko ibilbidearen ostean. Han ibilitako jokalariek asko seniorren Ezkurdi taldean ibiliko dira datorren urtean. Ate bat itxi, eta beste bat irekiko dute. Iurretakon bizitako urteei, zuzendaritzagaz izandako eztabaidei eta etorkizunera begirako asmoei buruz egin dugu berba hiru jokalariekin.

Zeintzuk izan dira Iurretako bertan behera geratzeko arrazoiak?

Nerea Gomez: Arazoa ez da aurtengo denboraldira mugatzen, urtetako kontua da. Hasieran zuzendaritzako batzuk jokalariek gurasoak ziren, eta ez zegoen hainbesteko arazorik. Gizonen taldea beti egon da emakumeenaren gainetik, baina horren ostean emakumeena zen pisu handiena zuen taldea. Zuzendaritzako kide horiek joan zirenetik egoera okertu egin da.

Nora Ordoñez: Azken denboraldietan zuzendaritzak ez du bere partetik asko ipini taldea osatzeko. Lagundu beharrean, baldintza asko ipini ditu. Uste dut aurtengo ere atera ahal izango genuela taldea, baina urte

askoan jaso dugun tratuagaz nekatuta geunden. Aurten jokalariek faltan egon gara, bai, baina ez da egoera berria. Emakumeen futbolaren sarridan kostatzen da taldea osatzea. Baina orain arte beti bermatu izan dugu. Urte askoan emakumeen taldeak aurrera egin badu entrenatzaileen baten eta jokalariek ekimenagatik izan da. Esaterako, errifak atera eta kamisetak saldu izan ditugu.

N.G.: Orain arte horrela egon bagara, Ezkurdik egin dugun moduko eskaintzarik ez dugulako eduki izan da.
N.O.: Gauza bat argi utzi gura dugu. Zuzendaritzatik inplikazio falta leporatu izan digute: entrenamenduetara ez ginela denok batzen, partidu batzuetara hamar jokalarigaz joan gara... Gizonen taldean 30 jokalariek badaude eta bost falta badira, ez da asko igartzen. Emakumeentan, aldiz, taldea osatzea gehiago kostatzen da. Esaterako, lan kontuengatik entrenamenduetara etorri ezin badute, jokalariek falta gehiago igartzen da, jakina. Baina azken batean egoera horregaz geu gara kaltetuak. Begira, zuzendaritzari taldeak aurrera jarraitu zezan benetako interesa ikusi izan bagenio, guri konpromisoa eskatzea ondo ikusiko

genuke, baina ez da horrela izan: konpromisoa eskatu du, baina ez dugu klubaren aldetik babesik eta egoerari buelta emateko borondatearik sentitu. Ez gaituzte aintzat hartu, horrela sentitu gara. Eta ez gabilta diru kontuei buruz, tratuari buruz baizik. Esaterako, mutilen talde berri bat sortzen bazen, gure entrenamenduak azken ordura pasatzen zituzten, edo mutilen entrenamendu bat ordu berean bazen, guri zelai zatitxo bat bakarrik uzten ziguten entrenatzeko. Ez dira askotan gertatu diren kontuak, baina gertatu dira, eta apurka-apurka erre egiten dute.

Zelan sortu da Ezkurdiren eskaintza?

I.G.: Ezkurdik, beheko mailetako taldeak izanda, nagusien talde bat ateratzeko asmoa zuen. Gure bigarren entrenatzaileak talde bat entrenatzen du Ezkurdin, eta berak jakinarazi zigun. Jokalariek behar zituzten nagusien mailako taldea osatzeko.

Zerk erakarri zaituzte Ezkurdiren proposamenetik?

N.O.: Interes handia ikusi dugu. Berba egin, eta gauzak adostu beharra dago, baina gu benetan konbentzitu gaituena Ezkurdiren

zuzendaritzatik sentitu dugun interesa izan da. Ez dakit zer eta zelan irtingo den, baina gauzak ondo egiteko gogoia ikusten dugu. Horrek norberari ere ilusioa pizten dio. Gainera, denok batera jarraitzeko aukera dugu.
N.G.: Nork bere bidea hartuz gero, seguruenik jokalariek guztiak ezingo lukete talderik lortu, eta gure ideia denok elkarrekin jarraitzea zen.

Zelan osatuko duzue datorren denboraldiko taldea?

I.G.: Iurretakotik hamar jokalariek goaz seguru. Beste bik oraindik erabaki barik dute. Fitxaketak egongo dira, eta Ezkurdiren gazteen taldea ere hor dago.

N.G.: Ezkurdik kadete eta gazte mailako taldeak ditu. Horrek partiduei gutxieneko kopuru batez aurre egiteko bermea eskaintzen du, eta abantaila bat da.

I.G.: Gu ez gara beti jokatzeko ibiliko, eta, taldea uztean, etorkizuna bermatuta dagoela jakitea pozgarria da. Iurretakon geratu izan bagina, aurtengo egoera berean egongo ginatekeen hurrengo denboraldiaren amaieran.

Iurretakon urte asko eman dituzue: Nereak hamahiru, Norak bederatzia eta lerak zazpi. Zein oroitzapen gordeko duzue?

N.G.: Iurretako nire kirol ibilbideko talde bakarra izan da. Iurretarra naiz, eta pena handia ematen dit Iurretakotik joan beharrak. Niretzat oso arraroa izango da Larrakozelaira ez joatea. Ez dakit zelan sentituko naizen talde berrian. Alde ona da blokeari eutsiko diogula, eta jokalariek elkar ezagutzen dugula.

I.G.: Urte hauetan guztietan elkarrekin bizi izan ditugun bizipen onekin geratzen naiz. Azken batean, hori da garrantzitsua.

N.O.: Nik ere gauza bera diot, bizitako une onak gordeko ditut. Iurretako ez da izan nire talde bakarra, baina, taldeko giroari eta hartu-eman pertsonalei dagokienez, urterik onenak Iurretakokoak izan dira. Arazoak arazo, hemen bizitako urteak ez nituzke ezergatik aldatuko.

I.G.: Taldean, oro har, urtero giro ona izan dugu, baina batzuetan taldetxoak sortu izan dira. Aurten jokalariek guztiak inoiz baino batuago egon gara.

Tarsicioren eta Castroren arteko lehia Zornotzako rallysprintean

> RALLYSPRINTA

Zapatuan, Zornotzako III. Rallyspinta lehiatuko dute. Aingeru Castro Rallysprint Txapelketako lider dela helduko da biharko probara, Iban Tarsicio abadiñarra bigarren tokian hamasei puntura duela. Biak sasoi onean daude, eta azken hiru lasterketak euren artean banatu dituzte: Tarsicio Hondarribian nagusitu zen, eta azkenengo biak, Azpeitiko eta Alegiako, Castrorentzat izan dira.

Iban Tarsicio Iñigo Peña atxondarra izango du kopilotu, Mitsubishi EVO IX autoan. Zornotzako rallysprinta bere kuttunenetakoa du. 2013ko lehen aldian, hirugarren sailkatu zen, eta, iaz, bigarren, irabazlearengandik segundo bakarrera.

Egiaztatze proben ostean, parte-hartzaileak Zelaieta parkeetik abiatuko dira 14:30etik aurrera. Etxano eta beste auzo batzuetatik zehar Euba ingurura eramango dituzte ibilbideak.

Durangoko klasikoa eta Emakumeen Bira asteen

> TXIRRINDULARITZA

Durango-Durango emakumeen klasikoak munduko onenen arteko lehia ekarriko du, beste behin, datorren martitzenean. Proba 15:00etan hasiko da, Ezkurdi plazan, eta toki berean dago helmuga ere. UCI rankingean aurreneko tokietan dauden txirrindulariek eta taldeek parte hartuko dute. Durangon abiatu eta Berriztik Elorrira joango dira Miñotatik. Ondoren, Muniketa ere igo beharko dute.

Hurrengo egunean, eguaztenean, Emakumeen Bira hasiko da, Iurretan hasi eta amaituko den erlojupeko bategaz. Marianne Vos eta Pauline Ferrand Prévot –iazko irabazlea– ez dira etorririko. Lesionaturik daudela jakinarazi dute. Vosek saihets-hezur bat apurtu zuen apirillean, mendi bizikletako proba batean, eta, antza denez, oraindik ez dago erabat sendatuta. Ferrand Prevotek mina izan du azken hil bietan ezker hankan, eta, asteen, ziatika diagnostikatu diote. Ondorioz, Bira inoiz baino zabalago dago gainerakoentzat.

Arteaga-Lasa eta Olano-Imaz bikoteak txapelaren bila, Mallabian

Biharko Izarrak txapelketako finalak jokatuko dituzte gaur, 19:30etik aurrera



Asier Arteaga finalerdietako partiduan sakea ateratzen. Maialen Zuazubizkar

> PILOTA Joseba Derteano Mallabian, Biharko Izarrak Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte gaur, 19:30etik aurrera. Ez dago faborito argirik, ez lau t'erdian, ez binaka.

Binakako finalak lau pilotari gazteren arteko norgehiagoka erakutsiko du: Asier Arteaga (Lasarte-Oria, 18 urte) eta Adur Lasak (Uhartea, 21 urte) Anartz Olanoren (Areso, 20 urte) eta Ander Imazen (Oiartzun 20 urte) kontra jokatuko dute. Atzean, Imazek nagusitu behar luke, baina Lasak esperientzia

gehiago du, eta oso pilotaria da. Aurrelari biak jotzaileak dira, baina Arteaga trebeagoa da tantoa amaitzerako orduan. Arteagak erakustaldia eskaini zuen finalerdietan. Asegarcek kate motzean lotuta duen pilotari dena irten zitzaion, eta ohi baino errazago amaitu zuen tantoa. Gainera, sasoiari dago GRAVN eta Bergara Hiria txapelketak irabazi ostean. Beraz, badirudi berak eskaini dezakeenaren arabera egingo duela txapelak alde batera edo bestera. Hala ere, Olanok ezker indartsua du,

eta Imazek eta biek Lasa atzean zigortzen badute, finalaren nondik norakoa aldatu dezakete.

Aurretik lau t'erdiko finala

Binakakoaren aurretik lau t'erdiko txapela erabakiko dute Xabier Etxebarriak (Uhartea, 16 urte) eta Ioritz Egigurenek (Lizartza, 17 urte). Egiguren abilagoa da, eta esperientzia handiago du finalak jokatzen; horregatik, irabazteko faborito ikusten dute adituek. Etxebarria jotzaileagoa da, eta bere estrategia pilota luze erabiltzea izan daiteke.

Triguerosek zilarrezko domina lortu du taldeka, trail txapelketan

> TRAILA

Joan zen asteburuan, Munduko Trail Txapelketa jokatuta zuten Frantziako Annecy herraren inguruan. Espainiako selekzioak lehenengoz parte hartu zuen txapelketa horretan, eta emakumeen taldeko lau partaideetako bat Abadiñon bizi den Silvia Trigueros izan zen. Emakumeek lan bikaina osatu zuten 85 kilometroko ibilbide gogorrean: taldeka bigarren sailkatu ziren, eta zilarrezko domina irabazi zuten. Triguerosek 25. tokian amaitu zuen lasterketa, 11 ordu 31 minutuko denboragaz. Maite Maiorak bakarkako podiumera igotzea lortu zuen, lasterketan hirugarren tokian sailkatu ostean.



ADITUAREN TXOKOA



Unai Zamalloa

Saskibaloia

Denboraldia amaituta

Aurtengo denboraldiaren bukaera honetan, errepasoa eta hainbat klubi buruzko hausnarketa egiteko sasoi dugu.

Zornotzaren denboraldia oso ona eta, era berean, zaila izan da. Mikel Garitaonandiaren taldeak, denboraldi guztian lesio asko izan arren, ondo amaitu du. Playoffean, lehenengo fasea pasatu zuen Xuven Cambadosen kontra, partidu bi jarraian irabazita. Finalerdietara pasatzeak klubaren aurrerapauso handia suposatzen du. Bi urte, eta bietan jokatuta dute Urrezko LEB ligara igotzeko playoffa. Aurten finalerdietan bukatu du denboraldia Guadalajararen aurka. Igoerarako finalean 3-2 geratu dira guadalajaratarak, Castelloko Amicsen aurka. Horiek igo dira Urrezko LEB ligara.

Labur esanda, urte ederra. Zaila eta gogorra. Baina aurrerapauso handia eta ederra eman du klubak. Lan onaren emaitza. Zorionak!

Beste alde batetik, Tabirakok ez du izan urrezko denboraldia. Mutiletan, Iskander de Dios entrenatzaileak talde berria eratzen finkatu du bere lana. Denboraldi honetan, ez du arazorik izan sailkapenean, eta, datorren denboraldira begira, taldea eratuta dauka. Lan horrek jarraipena izango du, eta emaitza onak izango ditu laster.

Tabirakoko neskek ere hurbil izan dute aurreko denboraldiko emaitzak jasotzea, baina ezin izan dute lortu. Hala ere, ezin dugu ahaztu egindako lana, eta lesioek jarri dituzten arazoez gain hurbil ibili direla aurten LF-2 ligara igoera lortzeko fasea jokatuzetik.

Amaitu da denboraldia, orain hurrengo prestatzeko lanak egiten hasi behar.

Durangon Bizikleta Eguna izango dute, domekan

Erakustaldiak, probak eta zozketak egingo dituzte

> TXIRRINDULARITZA

Gazteen artean txirrindularitza sustatzeko helburuz, Duranguesa elkarteak eta Durangaldeko Bizikleta Eskolak Bizikleta Eguna antolatuko dute domekarako, Ezkurdi plazaren inguruan.

Askotariko ekintzen artean, bizikleta martxa herriko bat egingo dute 11:00etan hasita. Bi zirkuitu prestatu dituzte: hamar kilometroko ibilbidea 6 eta 11 urte bitarteko gaztetxoei bideratuta egongo da, eta hamabost kilometrokoa, 12 eta 16 urte

bitartekoei zuzenduta. Izena doan eman daiteke probak hasi baino ordu erdi lehenagotik.

Trial Bike erakustaldia

Proben ostean, 12:00 inguruan, Jabi Cebrianek eta Alex Astorkiak Trial Bike erakustaldia eskainiko dute Ezkurdin batzen direnentzat. Gainera, goiz guztian umeentzako puzgarriak, ginkana, tailer mekanikoa eta bigarren eskuko bizikleten salmenta postua egongo dira. Gainera, bizikletarako osagarriak zotz egingo dituzte.

Mendiko bizikleta martxa egingo dute etzi, Berrizen

Udaletxe paretik irtengo dira, 09:00etan

> TXIRRINDULARITZA

Domekarako VI. Martxa Zikloturista antolatu dute Berriz Bizikletari Elkarteak eta Berrizko Udalak. Martxa ez da lehiakorra izango, baina, amateurrentzat ez ezik, espezialistentzat ere aproposa izango da, ibilbideko 120 kilometroetan orografia gorabeheratsua delako: Muniketara, Ixuara eta Areitiora igoko dira. Ekainean, proba gogorak izaten dira, Quebrantahuesos adibidez, eta askok hitzordu horietarako prestaketa gisa hartzen dute Berrizko

martxa. Lagunartean, presarik gabe egiteko ere aproposa da.

Izen-emateak

Berrizko udaletxe paretik irtengo dira, 09:00etan, eta 200 parte-hartzailetik gora izango dira. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke: 15 euro da lizentzia dutenentzat eta 25 euro gainerakoentzat. Izen-ematea webgunearen bidez egiten duenak (www.berrizbizikletarielkarte.com) 5 euroko deskontua izango du. Ekainaren 5a da horretarako azken eguna.

GAER

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

MACOBER

Tronperri kalea, 1 DURANGO

Zeramika eta gresa

Armeria Eskola

ELEKTRONIKA
DISEINUA
MANTENUA
ELEKTRIZITATEA
ROBOTIKA
CNC
MEKANIZAZIOA
TELEKOMUNIKAZIOAK
DOMOTIKA...

Interesaturik bazaude
deitu!

Zure zerbitzura
gaituzu


ArmeriaEskola[®]
"ondo egintako lana"

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 550€tik aurrera.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, komun 2 eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztatua.
- FRANTZISKO IBARRA: 4 logela, komun 2, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- MURUETATORRE: 3 logela, komun 2, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta trastelekua.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 120.000€
- ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelekuarekin. 128.000€tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoa kanpora begira dago. Berriztatuko. Inguru onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

ATXONDO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira dago. 3 balkoi. Garaje itxia.
- 3 logela, komun 2, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Etxe osoa kanpora begira dago. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta pilotalekua.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

